Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1974

90/2010 DEKRETUA, martxoaren 23koa, Oinarri EBB Elkarrekiko Berme Baltzuaren kapitalean aldi batean parte hartzeko baimena ematen duena.

Oinarri EBB Elkarrekiko Berme Baltzuak Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Nazioarteko finantza-krisiaren ondorioz, luze jotzen ari da ETEen, banako enpresaburuen eta autonomoen finantzazio-eskasia, eta, egoera horri aurre egiteko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak «EAEko 2009rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko 9. xedapen gehigarriak aipatzen zuen bermeen funts berezia eratzeko eta arautzeko hitzarmena» sinatu zuen Oinarri EBB baltzuarekin, 2009ko urtarrilaren 14an. Hitzarmenak helburu jakin bat zuen, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Oinarri EBBk emandako abal-eragiketa guztiak birfinkatzea, horretarako abenduaren 30eko 230/2008 eta 229/2008 Dekretuez baliatuta; izan ere, dekretu horien bidez garatzen dira, hurrenez hurren, enpresa txiki eta ertainen (ETE) nahiz banako enpresarien eta profesional autonomoen finantza-egitura egokitzeko finantza-laguntza emateko programak.

Aurreko hitzarmenaren data bereko eranskin batean honakoa ezarri zen: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak behin-behineko ekarpen itzulgarriak egingo ditu Oinarri EBBren kapital sozialean, hitzarmen honetako estipulazioei jarraituz eta honako baldintza hauen arabera:

Kapital sozialean egindako ekarpenaren zenbatekoa hitzarmenaren babesen gauzatutako abalen % 0,8koa izango da gehienez, eta sei hilean behin egingo da, seihileko natural bakoitzean gauzatutako abal-kopuruaren arabera».

Oinarri EBB baltzuak, aurtengo urtarrilaren 27ko idazkiaren bitartez, 2009ko bigarren seihilekoari zegokion 332.988 euroko kapital-ekarpena eskatu zuen. Ekarpen hori balio nominalean egingo da, inolako jaulkipen-primarik gabe.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110.1 artikuluak dioenez, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseilu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

1974

DECRETO 90/2010, de 23 de marzo, por el que se autoriza la toma de participación temporal en el capital de Oinarri, Sociedad de Garantía Recíproca, S.G.R.

Oinarri, Sociedad de Garantía Recíproca, S.G.R. es una sociedad de garantía recíproca que opera en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ante la situación de prolongada insuficiencia en la financiación de las Pymes, empresarios individuales y autónomos provocada por la crisis financiera internacional, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi suscribió con Oinarri, S.G.R. el 14 de enero de 2009 el «Convenio por el que se constituye y regula el Fondo Especial de Garantías a que se refiere la disposición adicional novena de la Ley de Presupuestos Generales para 2009 de la CAE». Su objeto consistía en el reafianzamiento por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de todas las operaciones de aval concedidas por Oinarri, S.G.R. en el ámbito de los Decretos 230/2008, de 30 de diciembre, y 229/2008, de 30 de diciembre, por los que se desarrollan, respectivamente, los programas de apoyo financiero para la adecuación de la estructura financiera de las pequeñas y medianas empresas y de los empresarios individuales y autónomos.

En una addenda de igual fecha del anterior convenio se establecía que «La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi efectuará aportaciones de forma temporal y retornable al capital social de Oinarri, S.G.R. en virtud de las estipulaciones de este convenio de acuerdo con las siguientes condiciones:

El importe de la aportación al capital social alcanzará un máximo del 0,8% de los avales formalizados al amparo del convenio, efectuándose la misma con periodicidad semestral en función del volumen de avales formalizados en cada semestre natural».

Oinarri, S.G.R. solicitó mediante escrito de 27 de enero de este año la aportación de capital correspondiente al segundo semestre de 2009, por un total de 332.988 euros. La adquisición se efectuará a valor nominal no existiendo ninguna prima de emisión.

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, dispone que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización pre-

aren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak, doako eskuraketa ez baldin bada behinik behin, nahitaezkoa izango du sozietatearen xedea adieraztea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratze horretan izango duen partaidetzaren ehunekoa ere, zuzenean nahiz zeharka.

Oinarri EBB baltzuaren helburua da bertako partaide diren bazkideei berme pertsonalak ematea, abal bidez edo zuzenbidean onartutako edozein bitartekoz, kauziozko asegurua bazter utzita, bazkideek berme horien bidez beren enpresetako negozio multzoaren edo trafikoaren barruan eragiketak egin ditzaten.

Eskuratze horren aurretik EAEko Administrazioak Oinarri EBBren kapital sozialean zuen partaidetza-ehunekoa % 1,6525ekoa zen 2009ko abenduaren 31n. Ekarpen horren ondorioz % 1,8668ko ehuneko gehigarria eragingo luke, egiten den egun berean. Elkarrekiko berme-baltzuak, beren araudiak hala ezarrita, kapital aldakorreko baltzuak dira, eta horrexegatik ditu partaidetza horrek gorabeherak.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 23ko bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena emango zaio Ekonomia eta Ogasun Sailari Oinarri EBBren kapital sozialean aldi baterako eta itzultzeko moduko 332.988 euroko ekarpena egiteko eta kopuru hori ordaintzeko, betiere EAEko 2009rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko 9. xedapen gehigarriak aipatzen zuen bermeen funts berezia eratzeko eta arautzeko 2009ko urtarrilaren 14ko Hitzarmenari data berean egindako eranskinean zehaztutako estipulazioekin bat. Ekarpen horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak 2009ko abenduaren 31n Oinarri EBB baltzuan duen partaidetza % 1,8668koa izango da.

via del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del Consejero o Consejera competente en materia de patrimonio y del Consejero o Consejera del Departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

El decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la sociedad.

El objeto social de Oinarri, S.G.R. es la prestación de garantías personales, por aval o cualquier otro medio admitido en derecho distinto del seguro de caución a favor de sus socios partícipes para las operaciones que éstos realicen dentro del giro o tráfico de empresas.

El porcentaje de participación en el capital social de Oinarri, S.G.R. de la Administración de la CAE con anterioridad a esta adquisición era del 1,6525% a 31 de diciembre de 2009. Esta nueva aportación representaría un 1,8668% adicional en esa misma fecha. La participación oscila dado que las sociedades de garantía recíproca de acuerdo con su normativa son sociedades de capital variable.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 23 de marzo de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– Autorizar al Departamento de Economía y Hacienda para efectuar una aportación temporal y retornable al capital social de Oinarri, S. G.R., por importe 332.988 euros, y a su desembolso, en virtud de las estipulaciones fijadas en la addenda de 14 de enero de 2009 al convenio de igual fecha por el que se constituye y regula el Fondo Especial de Garantías a que se refiere la disposición adicional novena de la Ley de Presupuestos Generales para 2009 de la CAE Esta aportación equivaldría a una participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la sociedad Oinarri, S.G.R. del 1,8668% a 31 diciembre de 2009.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onesten den egunetik bertatik eragingo ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 23an.

Jarduneko Lehendakaria,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2010.

La Lehendakari en funciones,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.